

PARTE-HARTZE IZAERAKO PROZESUA
2024ko Azaroa



**"San Nikolas 23 eraikinaren
erabilera definitzeko
entzuketa-prozesua"ren
itzulketa-txostena**



Getxo
bizi ezazu

Sarrera

Getxoko Udalak, Gobernu Irekiaren ekintza-planaren esparruan, xedatu zuen herritarrek parte hartzeko prozesuak egingo zirela, udal-aurrekontuetako gastu publikoekiko konpromisoak identifikatze aldera, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 79. Artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Hala, toki-erakundeek kontsulta edo deliberazio publikoko prozesuak abiarazi ahal izango dituzte, erakundearen ezaugarriei eta errealitateari ondoen moldatzen zaien eran eta egokien irizten dieten gaiei buruz. Horrenbestez, Getxoko Udalak abian jarri du herritarrek parte hartzeko prozesua —entzuteko prozesua, alegia—, Portu Zaharreko San Nikolas kaleko 23.zenbakian dagoen udal-higiezinaren etorkizuneko erabilera zehazte aldera.

Eraikin ezagun eta historikoa da eta, birgaitzeko lehenengo fasearen ondoren, Getxoko Udalak erabileraren bat eman nahi dio. Horretarako, parte-hartze izaerako prozesu hau ireki da, komunitatearen proposamenak eta ideiak biltzeko, bereziki Portu Zaharrean bizi direnenak. Ondoren, obren azken fasea egingo da eta eraikina egokituko da.



Prozesuaren metodologia

Parte-hartze izaerako prozesua deliberazio publikokoa da, eta ez-loteslea. **Gobernu Ireki eta Modernizazio Arloak** antolatu du. Pilotaje-lanetan (diseinua eta dinamizazioa) laguntzeko, [KOMUNIKATIK](#) enpresa kontratatu zen, horrelako prozesuetan kaudimen sendoa duen enpresa.

Hizpide dugun parte-hartze izaerako prozesuak zenbait mugarri hartu ditu barne; jarraian azalduko ditugu. Honako hauek dira:

1. **Pilotaje-taldearen bilera**
2. **Alderdi politikoen aurkezpena**
3. **Talde eragilearen bilerak (2)**
4. **Ate irekien jardunaldiak (4)**
5. **Herritarren proposamenak biltzea (ekainaren 10etik 20ra)**
6. **Parte hartzeko topaketa (ekainak 22)**
7. **Prototipoa ematea**



1. Pilotaje-taldearen bilera

Parte-hartze izaerako beste prozesu bati ekin behar zaionean, horren diseinua alderdirik garrantzitsuenetako bat da: nork hartuko du parte? nola? zein egunetan? zein bitartekoren bidez? etab. Eman beharreko lehenengo urratsa da.

Pilotaje-taldea prozesu osoa gidatu, koordinatu, ezarri eta ikuskatzeaz arduratzen da. Prozesuko diseinatzaileek eta sustatzaileek eratzen dute taldea: alde batetik, Gobernu Ireki eta Modernizazio Arloak eta dinamizazio-enpresak; bestetik, prozesuari lotutako hainbat udal-arlotako teknikarien taldeak, zeinek prozesuan zehar aholkularitza eskaini baitute. Horiek horrela, honako hauek izan dira prozesuan zehar pilotaje-taldea eratu dutenak:

- **Mikel Erkoreka González:** Gobernu Ireki, Komunikazio, Gardentasun eta Parte Hartze Zerbitzuko zinegotzi titularra
- **María Jesús Gorroño Echebarria:** Alkatetzaren aholkularia
- **Ainhoa Gomila González:** Gobernu Irekiko teknikaria
- **Pedro Antonio Goikolea Arce:** Gobernu Irekiko teknikaria
- **Arantxa Sainz de Murieta:** Komunikatik
- **Asier Amezaga Albizu:** Komunikatik

Aholkularitza-taldearen kideak:

- **Xabier Fidel Payá Rúa:** Getxo Kulturako zuzendaria
- **Jorge Magdaleno:** Udal-arkitektoa
- **Mercedes Montalbán Gil:** Turismoko teknikaria

2024ko lehen lauhilekoan, prozesuaren metodologia eta diseinua finkatu ziren; hala, prozesuaren helburuak, mugarriak eta espero ziren emaitzak zehaztu ziren.

2. Alderdi politikoei aurkezpena

Parte-hartze izaerako prozesua hasi aurretik, Getxoko Udalean ordezkaritza duten alderdi politiko guztiei egin zitzaion deialdia, eraikina aurkezteko eta parte-hartze izaerako prozesuaren oinarriak azaltzeko, jakinaren gainean egon zitezen eta haien iritzia edo gogoetak jakiteko asmoz.

In situ egin zen informazio-bilerak, San Nikolas 23ko eraikinean bertan, **2024ko apirilaren 30ean**. EAJ-PNV, PP, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos taldeetako ordezkariak bertaratu ziren bilerara.


3. Talde eragilearen bilerak

Maiatzaren 16an, jendaurrean aurkeztu zen prozesua: prozesuaren hasieraren berri eman zitzaien herritarrei eta inplikaturako eragileei eta prozesuko helburuak, mekanismoak eta parte hartzeko epeak azaldu zitzaizkien.

Ildo beretik, talde eragile bat eratu zen, udaleko teknikariek eta Portu Zaharrari lotutako pertsonak osatutakoa. Taldearen helburua ekarpenak entzun eta biltzea da, bai eta auzotarrekin eta inguruko kolektiboekin elkarrikerak bultzatzea ere. Portu Zaharrari lotutako askotariko esparrutako hamar pertsonak eratu zuten talde eragilea, herritarren ordezkaritza anitza izan zedin. Talde eragileko kideetako batzuen iritziak jaso dira prozesuko orrialdean, Zeugaz-en.

Talde eragilearen lehenengo saioa maiatzaren 29an izan zen, Muxikebarrin (Foyer -2 aretoan). Guztira hamaika pertsona izan ziren, udaleko eta Komunikatik enpresako langileak barne.

Bigarren bilera ekainaren 5ean izan zen, toki berean (Muxikebarrin). Guztira hamar pertsona izan ziren, udaleko eta Komunikatik enpresako langileak barne.



4. Ate irekiko jardunaldiak

Ekimena herritarrengana hurbiltzeko beste mugarri bat eraikina irekitzea izan zen, herritarrek bisitatzea izan zezaten. Horrela, ate irekiko lau jardunaldi antolatu ziren, ekainaren 13, 14, 17 eta 18an. Ekainaren 13an eta 14an, goizeko 10:00etatik 14:00etara. Eta ekainaren 17an eta 18an, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara.

Eraikina aldeztu aurretik erreserba eginez bisita zitekeen, sannikolas23@getxo.eus helbide elektronikora idatzita, edo Getxoko Udalaren herritarren partaidetzarako plataformaren bidez, Zeugaz (<https://zeugaz.getxo.eus/processes/SanNikolas23/f/40/?locale=es>).

Aurretiko hitzordua baliatu zen bisita-txandak eraz antolatzeko. Nolanahi ere, ate irekiko jardunaldietan, eraikinera hurbildu ziren guztiak sartu ahal izan ziren, baldin eta dena delako txandan bisitarien kopurua betetik ez bazegoen.

Baseliza zaharrera sartu aurretik, bisitari guztiek baimen bana sinatu behar izan zuten; ilea biltzeko sarea eta buruan jartzeko segurtasun-kaskoa eman genizkien. Bisita horietan, Gobernu Irekiaren eta Modernizazioaren Arloko teknikariek lagundu zieten bisitariari –hala nahi bazuten–, eta eraikinaren historia, paneletan ikusgai zegoen informazioa eta prozesu parte-hartzailearen oinarriak azaldu zitzaizkien; orobat, prozesuari lotutako proposamenak egiteko eta ekainaren 22ko topaldian parte hartzeko gonbita egin zitzaien.

Hona hemen ate irekiko jardunaldietan izandako bisitarien kopurua:

- Ekainak 13: 15 lagun
- Ekainak 14: 14 lagun
- Ekainak 17: 17 lagun
- Ekainak 18: 7 lagun
- Bisitariak guztira: 53.

5. Herritarren proposamenen bilketa (ekainaren 10etik 20ra)

Prozesu honen mugarri nagusia getxoztarrek San Nikolas 23 eraikinaren erabilerari buruz egindako ekarpenak eta ideiak jasotzea izan da. Prozesua zabaltzeko eta parte hartzera animatzeko, proposamenak jasotzeko fasea hasi aurreko aste eta egunetan, komunikazio-kanpaina bat egin zen Getxoko Udalaren eta Zeugaz plataformaren bidez; bidenabar, informazio-kartelak jarri ziren eta diptikoa sartu zen Portu Zaharraren barrutiko postontzietan.

Ekarpenak eta ideiak jasotzeko hainbat bide prestatu ziren. Getxoko Udaleko parte-hartze prozesuetan ohikoa den bezala, Zeugaz plataforma erabili zen ekarpenak jasotzeko. sannikolas23 @getxo.eus helbide elektronikoa ere zabaldu zen, herritarrek ideiak aurkez zitzen. Hala berean, talde eragileak solaskide gisa jardun zuen, Portu Zaharreko pertsonen eta elkarten proposamenak eta ideiak biltzeko. Ate irekiko jardunaldietan, bisitariak egindako proposamenak ere jaso ziren.

Zeugazen alde aurretik argitaratutako ideia guztiak, ekainaren 22an, prototipoak sortzeko antolatu zen partaidetzazko topaldian azaldu ziren. Plataforman, proposamenak eta ideiak kontsulta daitezke, bai eta ikusi ere zein onartu ziren topaketa horretan lantzeko.

Hona hemen egindako ekarpen guztiak:

- **Talde eragilearen ekarpenak:**

Talde Eragilearen bi bileretan hainbat ideia, iradokizun eta ekarpen sortu ziren, eta bilerez arduratzen den Komunikatik agentziak **sei multzotan** bildu zituen.

- Altzariak eta beharrezko beste tresna batzuk

Teknologia eta konektibitatea: Proiektagailua, bozgorailuak eta WiFi-a eraikin osoan. Elementu digitalak eta errealitate birtualekoak integratzea, ondare-balioa nabarmentzeko.

Bulegoko gauzak: mahaiak, aulkiak, WiFi-a eta dokumentazioa eta elementu txikiak gordetzeko armairu bat.

Bilerak egiteko altzariak: mahai eta aulki tolesgarriak edo pilagarriak.

Aisialdi- eta jolas-guneak: sofa, mahai eta liburutegi txiki batez hornituriko guneak, lasai egoteko eta sozializatzeko.

Soinu- eta argiztapen-sistemak: oinarrizko ekipamendua areto nagusian, zarata leuntzen duen eta aldi bereko jarduerak egitea ahalbidetzen duen soinu zuzkitua.

Segurtasuna: espazio segurua bermatzeko beharrezko elementuak eta baliabideak.

Kanpoko kartelak: jardueren berri ematea sarreran, Generatxuko eskaileren ondoan eta eraikineko atean.

- Balizko jarduera batzuk

Auzotarrak elkartzeko gunea: auzotarrak elkartzeko gunea izan behar da eta komunitate- edo gizarte-jardueretan parte hartzeko aukera eman behar die, auzoa biziberritzen duten jardueren plangintza sustatuta.

Belaunaldien arteko gune erabilgarria: adin guztietako erabiltzaileentzako azpiegitura inklusiboa sortu behar da, belaunaldien arteko elkarrekintza eta lankidetzat bultzatuz.

Jarduera anitzeko espazioa: eraikinaren erabilerak malgua eta moldagarria izan behar du, hainbat jarduera-mota antolatu ahal izateko bertan.

Algortarekiko harremana: Algortan bizi diren gainerako herritarrak erakartzen dituen jarduera soziokulturalen eragile bilakatu behar da eraikina, Portu Zaharreko gizarte-bizitza suspertzeko asmoz.

Osasuna eta ongizatea: dantza, pilates, yoga eta tai-chi eskolak eskaintzeko gunea, armairuz hornitua, parte-hartzaileek bertan arropa uzteko modua izan dezaten.

Harremanetarako gunea: lagunartean sozializatu eta elkarreragiteko gunea, bat-bateko bilerak eta elkarrizketak sortzeko aproposa, komunitate-loturen indargarri.

Umeentzako gunea: ludoteka eta 3 eta 12 urte bitarteko umeentzako jarduerak. Gainera, 0 eta 3 urte artekoen Montessori gunea, euren kabuz iker eta ikas dezaten.

- Espazio fisikoari buruzko ideiak

Erabilera anitzeko eremu malguak: lagunarteko bilerak egiteko esparru erkideak, lehen sorospeneko tailerrak, filmen emanaldia, artea, teknologia, sukaldaritza eta jarduera fisikoa (esaterako, yoga) sustatzeko eremu erkideak. Entzunaldi txikiak, ipuin-kontaketak, emanaldiak eta hitzaldiak egiteko gunea, sormena eta komunitatearen parte-hartzea sustatuta.

Moduluzko diseinua: panel mugikorak, bionboak eta moduluzko altzariak, barruko espazioak jardueraren arabera (berr) antolatzeko, ikasteko girotik jolas-girora edo ekitaldi bat egiteko moduko azpiegitura batera azkar aldatzeko aukera emanda.

Elkarteentzako bulegoa: bulego-gunea, bulego txikiz hornitua, beste jarduera batzuei eragozpenik ez dakarkiena.

Aldagelak: funtzio anitzeko eremua, ispiluz eta argi egokiz atondutakoa, emanaldien aurretik arropa aldatzeko eta apaintzeko. Armairuz hornituriko komuna handia izan daiteke, beste erabilera batzuk dituen espazio gisa pentsatuta.

Biltegitratzea: eraikina kudeatzeko behar diren elementuak gordetzeko gunea.

Harrera-lekua: beheko solairuko eremua, udal-langileek kudeaketa, zaintza eta bitartekaritza-lanak egin ditzaten.

Egoteko gunea: lasai egoteko, irakurtzeko eta sozializatzeko txoko lasaia, liburuak, besaulkiak, sofak eta mahaia dituen, irakurketa eta elkarrizketa sustatzeko.

- Eraikina izendatzeko ideia batzuk

San Nikolasek balio historiko esanguratsua du, 1634an lehen aldiz aipatu baitzen San Nikolas baseliza Algortako itsasgizonen bilgune eta gurtza-leku gisa; bestetik, San Nikolas Barikoaren elizaren jatorria ere bada. Gainera, eraikinean erabilera ugari aurreikusten direnez, jarduera jakin bati lotuta ez dagoen izen generiko bat oso erabilgarria izan daiteke, mundu guztiak zabal onartutakoa.

Miren Larreak Udalari proposatutako Emakumeen Txokoa emakumeentzako gune eskusibo gisa sortu zen, garai hartan ohikoak ziren gizonezkoentzako txokoen aldean. Azken urteotan, jai-batzordearen eta auzokideen elkartaren bilerak egiteko erabili da, eta horrela deitu diote. Hala eta guztiz ere, izen horrek nahasmena sor dezake Getxon sortzen ari diren “Emakumeen Etxeak” proiektuekin.

Miren Larrea aretoa. Eraikinaren barruko areto nagusia “Miren Larrea aretoa” izendatuz gero, omenaldia egingo genioke Portu Zaharreko gizarte-bizitzan funtsezkoa den pertsona bati; berebat, haren ekarpena nabarmendu eta haren ondarea zainduko lirateke.

GETXO HUB. San Nikolas 23. Izenak espazioaren modernotasuna eta erabilera aniztasuna dakutsa, jarduera anitz eta komunitatea ingurune inklusibo eta dinamiko batean elkartzen direneko gunearen hasieraren ikur bilakatuta. Hala ere, nahasmena sor daiteke Getxon lantzen ari diren beste proiektu batzuekin, hala nola ekintzailetzari lotutako Sormen Hub eta Itsas HUB, eta horrek zaildu egin lezake komunitate-izaera berri hori barneratzea.

Zertarako balio behar du eraikinak?

Auzotarrak elkartzeko gunea: auzotarrak elkartzeko gunea izan behar da eta komunitate- edo gizarte-jardueretan parte hartzeko aukera eman behar die, auzoa biziberritzen duten jardueren plangintza sustatuta.

Belaunaldien arteko gune erabilgarria: adin guztietako erabiltzaileentzako azpiegitura inklusiboa sortu behar da, belaunaldien arteko elkarrekintza eta lankidetzak bultzatuz.

Kulturen arteko sentsibilizazio-gunea: kultura desberdinen topagunea izan behar da, kulturak ezagutu eta aitortzeko, Portu Zaharreko bizilagunen arteko elkarbizitza erraztuta.

Jarduera anitzeko espazioa: eraikinaren erabilerak malgua eta moldagarria izan behar du, hainbat jarduera-mota antolatu ahal izateko bertan.

Algortarekiko harremana: Algortan bizi diren gainerako herritarrek erakartzen dituen jarduera soziokulturalen eragile bilakatu behar da eraikina, Portu Zaharreko gizarte-bizitza suspertzeko asmoz.

- Funtzionamendua eta kudeaketa

Kudeaketa iraunkorreko langileak: urte osoan, langile finko bat egon beharko litzateke espazioa ireki eta ixteko, bereziki, azpiegitura gehien erabiltzen den sasoian, kasurako, udan. Udalak kudeaketaz, burokrazia-lanez, garbiketaz eta zaintzaz arduratu behar du.

Irekitze-ordutegia eta erabilgarritasuna: ordutegi malguak bermatu behar dira, erabilera maximizatzeko, berbarako, goizetan, erabilera publikoko jarduerak eta, arratsaldeetan, komunitate-jarduerak antolatuta. Asteburuetan, ordutegia zabalagoa izan beharko litzateke.

Komunitatearen gogozko parte-hartzea: komunitateko kideen txandakako sistema ezar liteke, bizilagunek ordutegi eta jarduera jakin batzuk kudea ditzaten, Udalari etengabe baimena eskatzeko beharra saihestuta.

Sarbidea eta giltzak: Udalak giltzak komunitateari adostutako ordutegietan uzteko sistema pentsa daiteke. Espazioa udal-langilerik gabe noiz ireki daitekeen eta zein jardueratan egon behar duten zehaztu behar da.

Erreserbak eta sarbidea: erreserbak online eta herritarren arreta-bulegoetan egiteko sistema antolatu behar da, giltza fisikorik gabe sartzeari egon dadin unean uneko okupazio-maila erakutsita

Jardueren antolaketa: arreta handiz planifikatu behar da, espazioaren erabileran gatazkak ekiditeko, jarduerak taldeen beharren eta ordutegien arabera orekatuz.

Leku segurua: eraikinaren segurtasuna bermatu behar da; era berean, ziurtatu behar da komun publikoak leku ez-seguru bihurtu ez daitezen erabiltzaileentzat.

- **Zeugaz plataforma erabiliz egindako ekarpenak**

Getxoko Udalaren Herritarren partaidetzako plataforma (<https://zeugaz.getxo.eus/?locale=es>) erabiliz, **13 ekarpen** egin ziren guztira. Ekarpenen inguruko xehetasunak Zeugaz plataforman eskuragarri daude. **Zortzi pertsonak eta elkarte batek** egin zituzten ekarpenok.

- Maila ertain-txikiko kultur ekitaldietarako lekua
- Sala de exposiciones temporales y charlas
- Un espacio abierto a la creatividad
- Salón de Actos para bodas
- Comisaría de Policía
- Gazteontzako espazio autogestionatua
- Propuesta para el edificio San Nikolas 23

- Izen proposamena: San Nikolas
- Propuesta de nombre: San Nikolas
- Erakusketa-aretoa eta arrantzaleen museo txikia
- Espacio cultural y de esparcimiento
- Conciertos de música antigua
- Espacio de actividades culturales medianas-pequeñas

- Posta elektronikoaren bidezko ekarpenak

Prozesu honetan, berariazko posta elektronikoa sortu zen: sannikolas23@getxo.eus. Jendeak ekarpenak egiteko ere erabili zuen posta elektroniko hori. Hala, posta erabiliz, **lau** pertsonak egindako lau ekarpen jaso ziren.

- Herritarrentzako udal-txokoa
- Liburutegi publikoa egitea
- Erabilera anitzeko udal-espazioa, bertan elkartzeko eta kultura sustatzeko
- Gazte-dantzalekua

- Ate irekiko jardunaldietan jasotako ekarpenak

Ate irekiko jardunaldietan, prozesuan parte hartzeko baldintzak betetzen zituzten bi bisitarik bertatik bertara egin zituzten ekarpenak. Bi pertsona izan ziren guztira eta horietako bakoitzak ekarpen bat egin zuen (bi ekarpen, guztira).

- Portuko gazteentzako kulturgunea eta topagunea.
- Bilerak egiteko gunea, jendea bizi eta elkarrekin bizi dadin.



6. Parte hartzeko topaketa (ekainak 22) eta emaitzak zabalitzea

Ekainaren 22an, larunbata, parte hartzeko topaketa bat egin zen Balanar Aretoan (Muxikebarri), 09:30etik 14:00etara. Saioaren helburua proposamenak eta ideiak sortzea izan zen, adimen hertsiko ariketa batean elkarlanean arituz, jasotako proposamenak entzutek abiatuta.

Askotariko metodologiak baliatuta eta jasotako ekarpenetatik abiatuta, parte-hartzaileei animatu zitzairen prototipoak diseinatu ditzaten ekipamenduaren erabilerak eta beharrak identifikatze aldera.

Guztira **34 pertsonak** eman zuten izena (derrigorrezkoa zen): **27 Zeugaz bidez** eta **7 posta elektronikoaren bidez**. Gainera, Udaleko Gobernu Irekiaren arloko kideek eta Komunikatik enpresako langileek parte hartu zuten, eta topaketa dinamizatzeaz eta zuzentzeaz arduratu ziren.

Izena eman zuten 34 pertsonetatik 13 ez ziren bertaratu (**% 38.24**). Zeugaz emandako 27etatik 9 falta izan ziren (**% 33.33**). Posta elektronikoz izena eman zuten 7 pertsonen artean, 4 ez ziren bertaratu (**% 57.14**). Saioa honela antolatu zen:

- Parte-hartzaileei harrera.
- Ongietorria: erakundeen agurra eta prozesuaren eta lan-planaren aurkezpena.
- Pertsonak konektatzea: Mugimendu-dinamika tokian, parte-hartzaileek konekta eta elkar ezagut dezaten.
- Bildutako ideiei lotutako bost gai jorratzea. Taldean lan egitea, prozesuan bildutako ideietatik abiatuta aurrera egiteko printzipioei lotutako gaitan, hala nola ekipamenduari eman beharreko erabilerari dagokionez eta espazioan egin beharreko jarduerari dagokienez.
- Eraikuntza. Taldeka lan egitea, prozesuan jasotako ideietatik abiatuta eta aurreko dinamikan ordenatuta, ekipamendurako erabilera- eta funtzionamendu-proposamenen lau prototipo eraikitzeko.
- Bateratzea. Osoko bilkuran lau proposamenak aurkeztea.
- Amaiera: Eskerrak ematea, hurrengo urratsak zehaztea eta bilera amaitzea.

Topaketa horren ondorioz, **lau prototipo oso** lortu ziren. Horietako bakoitzak eraikinaren ikuspegi bakar eta zehatza islatzen du. Proiektu bakoitza osoko bileran partekatu zen gainerako parte-hartzaileekin. Lau prototipoak (dagozkion irudi eta azalpenekin) Zeugaz plataforman argitaratu ziren eta eskuragarri daude.

Topaketan zehar egindako prototipoetan oinarrituta, pilotaje-taldeak bosgarren prototipo bat garatu du proposamen integratzaile gisa (ikus prototipoa kontsultatzeko azken eranskina).

Txosten hori eta prototipoa gobernu-taldeari bidali zaizkio, prozesuaren informazio eta emaitza guztiekin batera (Zeugaz plataforman dago eskuragarri), eraikinaren etorkizuneko erabilerari buruzko erabakia hartzeko oinarri izan daitezen.

Udal gobernua, udal teknikariekin elkarlanean, jasotako proposamenen eta erabakia hartzeko prestatutako prototipoaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa aztertuko du.

Prozesua zabaltzea eta herritarren parte-hartzea sustatzea

Prozesua zabaltzeko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko, komunikazio-plan hau garatu da:

- **Hedapena prentsa-ohar baten bidez:** 2024ko maiatzaren 16an prentsa-ohar bat igorri zen Udaleko informazio-komunikabideen sare osora. Oharrean, **"El Ayuntamiento activa el proceso participativo para definir el uso del edificio San Nicolás, 23, en el Puerto Viejo - Udalak martxan jarri du Portu Zaharreko San Nikolas 23ko eraikinaren erabilera zehazteko parte-hartze prozesua."** izenekoan, parte hartzeko prozesuaren oinarriak eta helburuak azaltzen ziren. Gainera, prentsa-oharra udalaren webgunean jarri zen, (<https://www.getxo.eus/eu/oficina-prensa/notas-prensa/notas-prensa/7985>), eta YouTubeko Udalaren kanalerako sortutako bideo bat txertatu zen. Era berean, oharra egokitu egin zen udalaren sare sozialen bidez zabaltzeko: Twitter (X), Facebook eta Instagram.
- **Argitalpena "Getxoberri" udal-aldizkarian:** 1776. zenbakian, maiatzaren 16tik 26ra bitarteko aldiari buruzkoan, prozesuari buruzko informazio guztia argitaratu zen azalean:

getxoBerri

Destacados

- > "Para Vida", el rescate de Nani Ochoa de Oliva (Pág. 2)
- > Pruebas de atletismo en la Escuela de Natación (Pág. 3)
- > Multimedios abierta en la Escuela de Música "Antonio López" (Pág. 4)

Trilabia 2024 (Suplemento interior)

Teatro, Sábado 25, a las 20:00h, en Marikaberi, "Los que limpian" con A. Pineda. 12€

Concierto Sábado 25, a las 19:30h, en la Escuela de Música "Antonio López" de Las Arenas, Música Marikaberi presenta "Música para el alma" con "Música para el alma". 14€

El Ayuntamiento activa el proceso participativo para definir el uso del edificio San Nicolás, 23, en el Puerto Viejo

El Ayuntamiento ha iniciado el proceso de escucha ciudadana para identificar necesidades y recibir propuestas para definir el uso del edificio municipal situado en la calle San Nicolás, 23, de Algorta (también conocido como "Trokanak"). Por ello, invita a la ciudadanía general, en general, y a los vecinos y vecinas del Puerto Viejo en especial, a participar en este iniciativa para la que se han habilitado diferentes espacios de participación a través de encuentros y foros, que se llevarán a cabo entre los meses de mayo y junio. Una vez finalizada esta fase del proceso, el Ayuntamiento publicará los resultados obtenidos que servirán de base para determinar el uso del edificio.

Finalizar la última fase de las obras y el posterior acondicionamiento de este equipamiento municipal.

Cómo participar

La fase pública de recogida de aportaciones estará abierta del 10 al 20 de junio. Cualquier persona empadronada en Getxo podrá presentar propuestas o ideas para el futuro uso del equipamiento online o por correo electrónico.

Los días 13, 14, 17 y 18 de junio habrá jornadas de puertas abiertas para permitir a las personas interesadas conocer el edificio en su estado actual. Aunque las visitas son abiertas, para evitar problemas de aforo, es recomendable inscribirse.

Las propuestas e ideas recogidas se trasladarán al encuentro participativo que tendrá lugar el 22 de junio de 2024 a las 13:30h, en Marikaberi. A partir de estas aportaciones e ideas, con la ayuda de diferentes metodologías y herramientas, se invitará a las personas participantes a diseñar propuestas para identificar los usos y necesidades del equipamiento. Para tomar parte en el encuentro en Marikaberi es necesario inscribirse. La participación e inscripción a las actividades podrá hacerse online, a través de la plataforma Zengaz zengaz, o por correo electrónico: participacion@getxo.eus.

El edificio tiene su origen en la antigua ermita de San Nicolás (1634) y fue lugar de culto y reunión para los marikaberi de Algorta así como Escuela Náutica, casa de maestros, calabozo, perrera o almacén. También alberga viviendas y fue espacio social y de reunión.

Fin de semana importante para el Getxo Rugby y el balonmano Romo

El edificio, con valor y protección patrimonial, tiene una superficie total de 125 m² y cuenta con un alero aproximado para 100 personas. Además de preservar su integridad estructural y estética, debido a su valor patrimonial, el uso del edificio deberá respetar la convivencia con el vecindario del barrio y no generar ruidos ni molestias. La primera fase de las obras de rehabilitación ha sido completada recientemente. Ahora falta por definir el uso del espacio para ajustar y

El senior femenino del Getxo Rugby jugará la final por el ascenso a la Liga Iberdrola en Fadura, este domingo, día 16, ante el Cizur, tras vencer en la semifinal a los Pinguinos de Buzos (20-10). Para ascender, el Getxo deberá vencer como local a las madrileñas o ganar al Elbar el partido de promoción en sede neutral.

Por su parte, el club Balonmano Romo disputará en Serio, del 17 al 19 de mayo, la fase de ascenso a la 2ª categoría estatal de la modalidad, que le enfrentará con el Club Balonmano Serio, Leandri Landerio y el club catalán de La Foca. Tras un arranque irregular en liga, el club errenketa ha culminado una segunda vuelta muy meritoria, en la que ha llegado a encadenar 14 victorias consecutivas. Tras quedar 2º en la fase regular, disputará la fase de ascenso por segundo año consecutivo.

- **Prozesu osoa Getxoko Udaleko herritarren partaidetzarako plataforman argitaratzea: Zeugaz.** Getxoberri, webgunea eta sare sozialak prentsa oharrean argitaratu ziren egun berean, prozesuari buruzko atala aktibatu zen Zeugazen: <https://zeugaz.getxo.eus/processes/SanNikolas23?locale=es>.

Informazioa honako multzo hauetan antolatu zen:

- Prozesua.
 - Eraikina.
 - Jasotako ideiak.
 - Parte hartzeko topaketa.
 - Proposamen kolektiboak.
 - Bloga.
 - Eraikina bisitatzea.
- **Liburuxkak eta kartelak:** Portu Zaharreko prozesuari buruzko informazio-liburuxka bat diseinatu, inprimatu eta postontzietan sartu zen. Guztira, 900 liburuxka inprimatu ziren (Buzoneatutako eremuan 184 atari eta 634 etxebizitza daude). Gainera, zenbait kartel diseinatu eta inprimatu ziren, eta Portu Zaharreko leku estrategikoetan jarri ziren, prozesua ezagutarazteko informazio garrantzitsuenarekin: nola parte hartu, eraikinaren bisitak, parte hartzeko topaketa... Halaber, lau informazio-panel diseinatu ziren ate irekien jardunaldietarako, eta horiek eraikinaren lau izkinetan jarri ziren, gai desberdinekin: Getxoko herritarrek parte hartzeko bideak; San Nikolas 23 eraikinaren historia; eraikinaren barrualdeari buruzko infografia; eraikinaren egiturazko mugak.
 - **Sare sozialak.** Udaleko sare sozial hauek erabili dira prozesuari buruzko informazioa emateko:
 - **X** (<https://x.com/GetxoUdala/>);
 - **Facebook** (<https://www.facebook.com/GetxoUdala/>);
 - **Instagram** (<https://www.instagram.com/getxoudala/>).

Hauek dira sare sozialetako eraginaren monitorizazioaren emaitzak:

Twitter

Maiatzaren 15ean argitaratu zen parte hartzeko prozesuaren hasieraren berri ematen zuen albistea. Postarekin batera, Komunikaziotik argitaratutako bideo bat zegoen. Beti egiten den bezala, posta lehenengo euskaraz bidaltzen da eta gero gaztelaniaz. Hauek dira estatistikak:

- Posta euskaraz: 342 inpresio/17 interakzio/5 xehetasun gehiago/2 klik esteketan.
- Posta gaztelaniaz: 711 inpresio/60 interakzio/9 xehetasun gehiago/9 klik esteketan/3 profileko bisita.

Facebook

Metaren sare sozialean, maiatzaren 15ean, Twitterren berri bera argitaratu zen. Hona hemen bere estatistikak:

- Posta euskaraz: 842 irismen/3 segundoko 324 erreproduzio/78 minutu erreproduzituta/17 erreakzio – iruzkin.
- Posta gaztelaniaz: 157 irismen/3 segundoko 81 erreproduzio/5 minutu/24 minutu erreproduzituta/5 erreakzio – iruzkin.

Instagram


Sare sozial honetan estrategia propioa aplikatu zen. Prozesu osoan zehar Instagramen hainbat *reel* eta *storie* argitaratu ziren. Prozesuan zehar, informazio-pilulak eta elkarrizketak argitaratu ziren talde eragileko kide batzuekin. Gainera, talde horren bileretatik eta ekainaren 22an Muxikebarriko Balanar Aretoan izandako parte hartzeko topaketatik ere mugitu ziren *reel* horiek.

Hauek dira argitalpenen datu estatistikoak:

Data	Protagonista	Irismena	Erreproduzioak	Erreproduzio denbora
17/05	Prozesuaren hasiera - Berria	668	1039	2.02.47
23/05	Marcos Bretos	1422	2476	8.19.33
29/05	Anselmo Ardanza	781	1345	2.50.56
03/06	Patricia Martínez	775	1417	3.48.54
05/06	Talde Eragilearen lehen saioa	593	1084	2.14.16
12/06	Talde Eragilearen bigarren saioa	516	961	1.41.54
17/06	Daniela Huber	928	1741	5.15.27
20/06	Sira Antolín	657	1175	2.27.41
22/06	Ekainaren 22ko topaketa	724	1352	2.41.05



ERANSKINA



Integrazio - prototipoa

Ekainaren 22ko parte hartzeko topaketan, eraikinaren erabilerari eta etorkizunari buruzko lau proposamen kolektibo egin ziren. Proposamen bakoitza prototipo moduan gauzatu zen. Hauek dira Zeugaz plataforman kontsulta daitezkeen lau prototipoen izenak:

1. **Katarrene Etxea**
2. **San Nikolas Etxea**
3. **San Nikolas y Katarrene**
4. **San Nikolas 23**

Ondoren, Gobernu Irekiaren eta Modernizazioaren Arloak **bosgarren prototipoa** aurkeztu du. Prototipo hori aurreko lauen bilduma bat da, proposamen integratzaile bat, parte hartzeko prozesuan lortutako emaitzak ordenatu eta egituratzeko eta erabakiak hartzea errazteko.

1. Eraikinaren izena

SAN NICOLÁS ETXEA

San Nicolás da gehien errepikatu den izena eta prozesuan zehar atxikimendu gehien sortu dituen. Gainera, bateragarria izan daiteke eraikineko espazioei izen desberdinak proposatzeko aukerarekin. Esate baterako, "Miren Larrea Aretoa" edo "Helena Izkina", auzoko komunitate-bizitza aktibatzen eta mantentzen paper garrantzitsua izan duten Portu Zaharreko emakumeak aitortzeko izendapenak izan daitezke.

2. Helburuak eta printzipioak

- Auzoak eta komunitateak elkartzeko gunea. Egoiliarrek sozializatu, erlazionatu eta auzoa indartzeko jardueretan parte hartu ahal izateko tokia izango litzateke. Gune hori palanka bat izan liteke, bizilagunek eraikinaren plangintzan eta kudeaketan parte har dezaten sustatzeko eta, horrela, kide izatearen zentzua eta lotura komunitarioak indartzeko.
- Algortako gainerakoekiko harremana estutzea. Eraikinak jarduera soziokulturalen motorra izan behar du, Algortako bizilagunak erakartzeko eta Portu Zaharrean bizitza soziala bultzatzeko.
- Belaunaldien arteko erabilera. Belaunaldi desberdinen arteko interakziorako espazio inklusiboa, adin guztietako pertsonentzat diseinatutako programak eta jarduerak ezarriz, gazteen eta adinekoen arteko ulermena eta lankidetzat sustatuz.

- Kulturarteko sentsibilizazioa eta bizikidetza. Kulturarteko sentsibilizazioa eta bizikidetza harmoniatsua bilatu beharko lituzke, kultura-aniztasuna ospatuko duten programa eta jardueren bidez.
- Turismoa ez sustatzea. Eraikinak ez luke Portu Zaharrera turismo gehiago erakarriko lukeen ekitaldirik hartu behar.

3. Egin daitezkeen jarduerak

- Formatu txikiko kultura-jarduerak. Aldi baterako erakusketak, liburuen aurkezpenak eta hitzaldiak egin litezke.
- Tailerrak eta mintegiak. Adin guztietarako tailer eskuragarriak egin litezke: artea, arrantza-aparailuak, teknologia, eskulanak, sare sozialak, lehen sorospenak eta komunitate-ikaskuntzara bideratutako jarduerak.
- Elkarte eta kolektiboentzako lan-eremua. Gune horretan elkarteak eta kolektiboen kudeaketarekin zerikusia duten lanak egin daitezke. Eremu hori baimen bidez erabiliko da, eta ez lagapen bidez.
- Truke-liburutegia. Liburuak trukatzeko sistema bat.
- Harremanetarako gunea. Egongelan, bizilagunek sozializatu, elkarreragin eta harremanak izan ditzakete, komunitate-loturak modu naturalean sustatuz.
- Portu Zaharraren historia ezagutaraztea. Eraikinaren eta portuaren historia azal lezaketen elementu apaingarriak, garrantzi historiko eta kulturala ulertzeko.

4. Leku fisikoa eta ekipamendua

- Areto nagusia. Eremu horretan bi jarduera posible identifikatu dira, ezin baitira aldi berean hainbat jarduera egin, espazio berak aukera hori eragozten duelako:
 - Hitzaldi eta emanaldi artistikoetarako gunea. Harmaila txiki bat, soinu-ekipo bat, proiektagailua duen pantaila bat eta aulki tolesgarriak izango lituzke.
 - Jarduera-eremua. Tailerretarako lan-mahai tolesgarriekin eta azterketa-garaian ikasteko gune gisa ere erabil zitezkeen.

Areto nagusiak koadroak, argazkiak eta beste erakusketa batzuk erakusteko sistema bat ere izan beharko luke. Liburuetarako apalategi batzuek espazioa mailegu-sistema gisa edo liburuak lagatzeko sistema gisa erabiltzea erraztuko lukete. Argiztapen-giro desberdinak sor daitezke errail bidezko foku adimendunekin.

Era berean, proposatzen da barruko landare batzuek bizia emango luketela eta espazioa atseginagoa egingo luketela.

- Elkarreentzako bulegoa. Sarreran, lanerako gune bat, bulego modukoa, beste jarduera batzuen garapenean oztopatzen ez duena.
- Bainugela handia. Bi zerbitzu ezartzen dira legez, horietako bat irisgarria.
- Biltegi txikia. Lekua kudeatzeko beharrezkoak diren elementuak biltegitratzeko gunea.
- Konektibitatea. WiFi-a bermatu beharko litzateke ekipamendu osoan.
- Segurtasuna. Eraikinari beharrezko elementu guztiak eman beharko litzaizkioke, leku segurua izango dela bermatzeko.
- Eraikinean egingo diren jardueren berri emateko kanpoko kartel-sistema. Eraikinaren sarreran jartzea proposatzen da, "Genaratxu"-tik sartzeko eskaileren ondoan.